

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroan inoizko babes zabalena lortu duen irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko hitzarmena sinatu dute Hezkuntza departamentuak eta Mahai Sektorialaren gehiengoak

Aurreko legegintzaldian hezkuntza publikoan egindako murrizketetan atzera egiteko hainbat neurri jasotzen ditu Mahai Sektorialaren %90etik gorak babestutako akordioak

Ostirala, 2018.eko abuztuak 24

Hezkuntza kontseilari Maria Solana Aranak eta hezkuntza publikoaren LAB, STEILAS, AFAPNA, ANPE, CCOO eta UGT sindikatuen ordezkariak sinatu dute Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2018-2022 Hitzarmena gaur goizean egindako ekitaldian.

Sinatutako hitzarmenak Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrez aurreko eskola orduetatik bi ordu murriztea ekarriko du. Neurria hau hastear dagoen 2018-19 ikasturtean sartuko da indarrean Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, aldiz, 2019ko irailean hastea aurreikusten da hitzarmenean.

Adostutako itunak jasotzen dituen beste neurrien artean 55 urtetik gorako irakasleen lanaldi murrizketa ere badago: zuzeneko irakaskuntza bestelako lanengatik ordezkatu da, ordainsaria murriztu gabe. Murrizketa era progresiboan ezarriko da. Horiek 2018-2022 Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Hitzarmenak jasotzen dituen neurrietako batzuk, eta Hezkuntzako Mahai Sektorialean ordezkariak duten LAB, STEILAS, AFAPNA, ANPE, CCOO eta UGT sindikatuek sinatu dute. Alegia, denek ELAk izan ezik, uztailaren 4an jakinarazi bezala kanpoan gelditu baita eta, ondorioz, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordetik kanpo geratuko da; izan ere, sinatzaileek osatutako batzordea izanen baita, 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren 84.2 artikulua diotenari jarraituz.

Hezkuntza kontseilariak gaur sinatutako akordioaren garrantzia



Solana kontseilariak hitzarmena sinatu du. Ondoan ditu, ezkerretik eskuinera, UGT, ANPE, AFAPNA, LAB, STEILAS eta CCOO.

azpimarratu du “batetik, UPNren gobernuak gauzatutako murrizketak lehengoratzeari ahalbidetzen duelako eta, bestetik, hezkuntza publikoaren aldeko urratsak egiteko gobernuak hartutako konpromisoarekin betetzen delako”.

Negoiazioak luze jo du eta tarteka departamentua ere kritiko agertu da, baina azkenik zehaztasun handia lortu da iraskaleen lan-baldintzen hobekuntza dakarten neurrietan; legegintzaldi hasieratik ezartzen ari diren neurriak, hala nola, hezkuntza berrikuntzan, irakasle taldeen egonkortzean, aniztasunari erantzuteko neurrietan, irakasleen trebakuntzan eta abar. Guztiak ere Akordio Programatikoa jasotako konpromisoak dira. Ildo horretan, Solanak adierazi duenez, “2019ko aurrekontuak aurrera atera daitezela espero dugu, beharrezko diru-partida eta babes parlamentarioarekin”.

Era berean, gogoratu du Espainiako gobernuak iragarri duela 14/2012 Erret Dekretuan aldaketak egingo dituela, Barkos presidentek Sanchez presidenteari egindako aldarrikapenaren ildoan, eta kontseilariak ere Celaá ministrari uztailako Hezkuntzako Batzordean gogorarazi bezala, “2015etik Nafarroan aurrera daramatzagun murrizketak lehengoratzeko neurriei marko juridikoa eta babes handiagoa emanen baitio”.

Hobekuntzak lan-baldintzetan

Aurrez aurreko eskola-ordu kopuruaren murrizketa dago; 2019 aurrekontuetan 10,4 milioi euroko igoera eragingo du neurriak. Akordioak jasotzen dituen beste neurri azpimarragarrien artean dago 55 urtetik gorako irakasleen irakaskuntza-orduen murrizketa. Aurrez aurreko eskola-orduek bestelako lanengatik ordezkatu ahal izanen zaizkie, soldatan eraginik izan gabe. Murrizketa era progresiboan ezarriko da. Hala, 55 urterekin sesio bat murriztuko da (2 Haur Hezkuntzan); 56 urterekin, 2 sesio (3 HHn); 57 urterekin, 3 (4 HHn) eta 58 urtetik aurrera, berriz, 5 sesio gutxiago izango dira.

Sindikatuak egindako beste aldarrikapen bat ere jasotzen du gaur sinatutako itunak: berehalako ordezkapenak. Modu horretan, aurreko hitzarmenean (2007-2011) jasotako ordezkapenez gainera, irizpide berriak ezarriko ditu Hezkuntza departamentuak ordezkapenak lehenbailehen gauzatzeko irakasle talde guztietan, laguntza-langileen kasuetan eta baita alde aurretik programatutako bajak betetzeko orduan ere. Era berean, Mahai sektorialeko sindikatuarekin adostu denez, eta aldi baterako postuen ordezkapenak arintze aldera, era telematikoaren eginen da plazen banaketa.

Gainera, kontraturiko irakasle taldearen aldarrikapenei erantzunez, 2018/19 ikasturtean aldi baterako langileen kontratuak udako hilabeteetan ere mantendu eginen zaizkie, beti ere, ikasturtean zehar gutxienez 5 hilabete eta erdi lanean aritu badira.

Hobekuntzak ikastetxeetan

Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2018-2022 Hitzarmenak, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko neurriak jasotzeaz gainera, ikastetxeen funtzionamendua hobetzekoak ere jasotzen ditu. Hala, landa-eremuko ikastetxeetako eskolatzeko-ratioak hobetu eginen dira etapa arteko geletan eta, gehienez, 14 ikasle izanen dituzte 2 maila batera aritzen diren geletan; gehienez 12 ikasle, 3 mailatakoak taldekatzean; 10 gehienez, 4 adinetako taldekatzeetan eta 5 mailatako taldekatzeetan, berriz, gehienez 10, gehi laguntza irakasle bat lanaldi erdira.

Horretaz gain, aniztasunari hobeto erantzun ahal izateko, Oinarrizko Lanbide Heziketan 14 ikasleren mugatuko da ratioa eta dibertsifikazio zein IEHP (Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programa) taldeetan, berriz, 12 ikasle izanen dira gehienez. Halaber, Jarraipen Batzordeak aztertuko ditu behar bereziak dituzten ikasleei eskainiko zaizkien baliabideak. Puntu horri dagokionez, Hezkuntza departamentuak konpromisoa hartu du behar berezietako ikasleek dagokien arreta espezifikoa izan dezaten maila guztietan.



Sinadura ondoren mintzatu da Solana kontseilaria

Jarraipen Batzordea

Bestalde, Hezkuntza Hitzarmenaren jarraipena egiteko, Jarraipen Batzordea osatuko da. Hari dagokio Hitzarmenaren edukiaren garapenari jarraipena egitea, aurrekontua daukaten atal guztiak betetzen direla eta adostutako epe zein irizpideak betetzen direla ikuskatzea, hitzarmenaren betetze mailari dagokion urteko memoria egitea eta Mahai Sektorialak agintzen edo delegatzen dizkion gainerako funtzioak. Jarraipen batzordea hitzarmena sinatu duten sindikatuen ordezkariak osatuko dute, eta euren ardura izanen da Mahai Sektorialean aztertu beharko diren gaiak zeintzuk izanen diren erabakitzea. 251/1993 Foru Dekretu Legegileak, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu Birbildua onesten duenak, zehazten du zein izango den era horretako batzordeen osaketa, 84.2 artikuluan